



ARABAKO EKONOMIA: Egoeraren adierazleak



2019ko martxoa

www.araba.eus



AURKIBIDEA

1. EKONOMIA INGURUNEA	3
2. ARABAKO EKONOMIA	7
2.1. KANPO MERKATARITZA	8
2.2. BENETAKO BARNE PRODUKTU GORDINA	9
2.3. INDUSTRIA EKOIZPENA	10
2.4. INDUSTRIA EGOERA	11
2.5. ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIA	13
3. LABURPEN TAULA. ADIERAZLE NAGUSIAK	14



EKONOMIA INGURUNEA

- Munduko ekonomia dezeleratzen ari da eta oraindik arrisku handiak daude; gainera, hazkundera uste baino askoz gehiago makaldu da Europan, OCDEren azkeneko ekonomia ikuspegi tartekoen arabera (2019ko martxoa).
- Ekonomia aurreikuspenak uste baino gehiago moteldu dira G20ren ia herrialde guztietan. Epe ertainera aurreikusitako hazkunde finko eta jasangarria hautsi ditzakete mundu guztian Txinaren ondoriozko zaugarritasunak, Europako ekonomia ahuldu izanak, munduko merkataritza eta manufaktura industria desazeleratzeak, politika oso kolokan egoteak eta finantza merkatuen arriskuek.
- OCDEk ohartarazi du merkataritza tentsioek eta “etengabe”ko ziurtasun gabeziak moteltzen jarraitzen duen mundu ekonomia mehatxatzen ari direla. Azkeneko aurreikuspenen arabera, munduko ekonomiak % 3,3ko hazkundera izango du, azaroko txostenean aurreikusitakoa baino bi hamarren gutxiago, eta 2020an % 3,4koa izango du, eta hori ere duela hiru hilabete aurreikusitakoa baino baxuagoa da (- % 0,1).



EKONOMIA INGURUNEA

- Eurogunerako aurreikuspenak oinarri, OCDE erakunderik pesimistena da, hazkunderako egin duen aurreikuspena 0,8 puntu jaitsi baitu; izan ere, aurten % 1ekoa izango da eta 2020an ez da iritsiko % 1,2ra. Bereziki gogorra da bi herrialdetan. Alde batetik, Alemanian, zeinarentzat OCDEk orain % 0,7ko hazkundera aurreikusten baitu 2019an (duela hiru hilabete eskas % 1,4ko hazkundera aurreikusten zuen), eta % 1,1ekoa datorren urtean. Eta, bestetik, Italian, herrialde hori atzeraldi teknikoan egongo baita, aurten -% 0,2ko hazkunde negatiboa izan baitu, eta 2020an, % 0,5eko hazkunde ahul batekin gaindituko du.
- Eurogunean egongo den eta aurreikusitakoa baino handiagoa izango den moteltzearen arrazoi nagusia, besteak beste, da industria ekoizpena “bereziki ahula” dela OCDEren arabera. Horrez gain, kanpo eskaria neurritsuagoa izango da eta “aparteko faktoreek” eragina izango dute, hala nola “automobilaren sektorean gorabeherak egongo dira ibilgailuentzako emisioen test berriak egin ondoren”.
- Gainera, horri erantsi behar zaio Brexitaren arazoa, bai Europarako bai Erresuma Baturako, zeinaren hazkunde aurreikuspenak ere beherantz berrikusi baitira: % 0,8 2019an eta % 0,9 2020an.



EKONOMIA INGURUNEA

- Nola hiru hilean behin egiten den berrikuspena den, ez dago Espainiari buruzko zifra berririk. Edonola ere, OCDEren arabera, une honetan ez da erakundeari gehien arduratzen dion herrialdeetako bat. Espainiako ekonomian desazelerazioa dago, baina garbiki positiboa da eta ez dago Alemanian edo Italian bezain kaltetuta.
- Espainiarako hazkundeari buruz gobernuak urtarrilean argitaratutako azkeneko aurreikuspenen arabera, % 2,6ko hazkundera egongo da aurten eta % 2,2koa datorren urtean.
- Estatistikako Institutu Nazionalaren arabera, Espainiako ekonomiaren BPGd-ak urtetik urterako % 2,3ko hazkundera izan zuen 2018ko laugarren hiruhilekoan. Tasa hori aurreko hiruhilekoa baino bi hamarren txikiagoa da, eta 2017ko azkeneko hiruhilabetekoa baino zortzi hamarren txikiagoa. 2018. urterako, Espainiako ekonomiaren BPGd-ak % 2,6ko hazkundera izan zuen, 2017an baino lau hamarren txikiagoa.



EKONOMIA INGURUNEA

- Euskal Autonomia Erkidegoko BPGd-ak, bestalde, Eustatek aurreratutako azken informazioaren arabera, urtetik urterako % 2,4ko hazkunde positiboa izan zuen 2018ko laugarren hiruhilekoan, aurreko hiruhilabetekoan baino bi hamarren txikiagoa eta iaz baino sei hamarren txikiagoa. 2018. urte osoan, Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomiak % 2,8ko hazkundera izan zuen, 2017an baino hamarren bat txikiagoa.
- Eusko Jaurlaritzak argitaratutako azken iragarpenek (2019ko martxo) aurreikusten dute EAEko ekonomiaren hazkundera 2019an % 2,2 izango dela.



ARABAKO EKONOMIA

- Arabako esportazioek % 2,4ko hazkunde positiboa izan dute 2018an. Edonola ere, hazkunde erritmoa erori egin zen urteak aurrera egin ahala, hainbeste ezen hazkunde negatiboak izan baitzituen azaroan eta abenduan.
- Arabako industria jarduerari dagokionez, esportazioek izan zuten jarreraren oso antzekoa izan zuen 2018an urteak aurrera egin ahala, baina 2018an % 0,2 erori zen Industria Produkzioaren Indizea (IPI).
- Eustaten datuen arabera, Arabako BPGd-ak urtetik urterako % 2,8ko tasa positiboa izan zuen 2018 osorako, 2017koaren antzekoa. Esportazioekin eta industria jarduerarekin gertatu zen bezala, BPGd-aren hazkundea jaitsiz joan zen urtean zehar; hain zuzen ere, 2018ko lehenengo hiruhilekoko % 3,3tik azkeneko hiruhilekoko % 2,2ra.
- Erregistratutako langabeziak eskuragarri dauden azken datuak, 2019ko otsailari buruzkoak, Araban 19.672 langabetu daudela diote, orain dela urtebete baino 833 pertsona gutxiago.
- 2018a % 0,8ko inflazio tasarekin bukatu zen. 2019ko otsailean, tasa % 1,3ra igo zen.



Kanpo Merkataritza


(Urtearteko bariazio tasa)

	2017	2018 (*)	2018ko metatua (*)	Azken datua (*)	Data
Esportazioak	7,1	2,4	2,4	-29,2	18-abendua
Inportazioak	9,1	4,6	4,6	-13,5	18-abendua
Estaldura Indizea (%)	176,9	173,3	173,3	128,0	18-abendua

Merkataritza Idazkaritzaren behin-behineko datuek diotenez, Arabako esportazioek % 2,4ko hazkunde metatua izan dute 2018an, eta inportazioek % 4,6koa. Horren ondorioz, estaldura indizea 173,3ra jaitsi da 2018an.

Iturria: Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioa, Aduanetako Idazkaritza

(*) Behin-behinekoa






Benetako Barne Produktu Gordina

Arabako BPGd-ak 2018ko laugarren hiruhilekoan urtetik urterako % 2,2ko tasa positiboa izan zuen (aurreko hiruhilekoan baino sei hamarren txikiagoa), Eustatek landutako datuek diotenez.

2018 osorako, hazkundea % 2,8koa izango dela aurreikusten da, 2017an erregistratutako tasaren antzekoa.

BPG (Urtearteko bariazio tasa)



Iturria: EUSTAT

(*) behin-behinekoa




Industria Ekoizpena

2018ak aurrera egin ahala, Arabako Industria Produkzioaren Indizea eroriz joan zen bere hazkunde erritmoetan; izan ere, hazkunde negatiboak izan zituen abuztutik aurrera. 2018 osorako balantzea % 0,2ko jaitsiera izan zen.

2018ko urtarrilean, joera horri jarraitu eta Arabako IPLa % 2,5 erori zen.

IEA. Urtearteko hazkundera






Industriaren Egoera

2018ko urria eta abendua bitartean, jarduera gutxiago ikusten da enpresen produkzioan, eta duela urtebete aldi berdinean erregistratutakoa baino saldo garbi txikiagoa erregistratu zuten. Horiek horrela, enpresen % 30ak bere ekoizpena handitu zuten urtearen hirugarren hiruhilekoarekin alderatuz, baina mantendu egin zuten beste % 52k.


Datozen hilabeteetarako aurreikuspenei dagokienez, ematen du Arabako industria enpresek geldialdia izango dutela.

Arabako industriaren konfiantzaren adierazlea





(BPG ETA IEA) BILAKAERA



(Urtearteko bariazio tasa)

	2015	2016				2017				2018			
	IV	I	II	III	IV	I	II	III	IV	I	II	III	IV
ARABA													
BPG	3,4	3,4	3,0	3,0	2,8	2,6	2,9	2,6	2,9	3,3	3,0	2,8	2,2
IEA	5,4	13,3	6,3	7,7	4,2	3,2	4,0	1,9	4,3	4,1	1,9	1,2	-7,8
EAE													
BPG	3,2	3,6	3,4	3,2	3,2	2,8	2,9	3,0	3,0	3,1	2,9	2,6	2,4
IEA	4,0	5,4	-0,4	1,1	3,5	2,6	2,6	3,0	3,7	3,6	2,4	0,5	-1,5
ESTATUA													
BPG	4,1	3,6	3,3	3,1	2,7	2,9	3,1	2,9	3,1	2,8	2,5	2,4	2,4
IEA	4,2	4,2	0,2	0,1	1,8	1,9	2,8	2,8	5,2	2,7	0,9	0,3	-2,8


Iturria: Eustat eta INE. IEA: 2010eko oinarria EAE; 2015eko oinarria Estatua. BPG: 2015eko oinarria EAE; 2010eko oinarria Estatua. 2015eko datuak behin-betikoak. SEC 2010



Erregistratutako Langabezia

2019ko otsailean, langabezia erregistratutako 19.672 pertsona zenbatu ziren guztira Araban. lazko hilabete berarekin alderatuz gero, langabeziak % 4,1 egin du behera.

Sektoreka, aurreko hilabetearekin alderatuta, Araban langabetuen kopurua sektore guztietan murriztu da, nekazaritzan eta aurreko talde langabetuetan izan ezik lazko hilabete berarekin alderatuz gero, langabeziak sektore guztietan egin du behera.





Laburpen Taula. Adierazle Nagusiak

(Urtearteko bariazio tasa) (%)

	2017	2018	2019ko metatua	Azken datua	Data
BPG					
Estatua	3,0	2,6		2,3	18-IV Hi
EAE	2,9	2,8		2,4	18-IV Hi
Araba	2,8	2,8		2,2	18-IV Hi
IEA					
Estatua	3,2	0,3	2,8	2,8	19-urtarrila
EAE	3,0	1,2	0,7	0,7	19-urtarrila
Araba	3,4	-0,2	-2,5	-2,5	19-urtarrila
KPI					
Estatua	1,1	1,2		1,1	19-otsaila
EAE	1,1	1,0		1,3	19-otsaila
Araba	1,1	0,8		1,3	19-otsaila
ESPORTAZIOAK					
Estatua	7,7	3,2		-0,1	18-abendua
EAE	11,5	5,7		-4,7	18-abendua
Araba	7,2	2,4		-29,2	18-abendua
ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIA					
Estatua	-7,8	-6,2		-5,2	19-otsaila
EAE	-6,3	-6,2		-5,8	19-otsaila
Araba	-6,7	-4,1		-4,1	19-otsaila

Datu absolutuak (%)

LANGABEZI TASA EPA Inkesta (INE) (**)					
Estatua	17,2	15,3		14,4	18-IV Hi
EAE	11,3	10,0		9,6	18-IV Hi
Araba	11,3	9,1		7,4	18-IV Hi
LANGABEZI TASA BJA Inkesta (EUSTAT) (**)					
EAE	11,3	10,3		10,2	18-IV Hi
Araba	11,7	10,8		10,8	18-IV Hi

Iturriak: INE, EUSTAT, SEPE, Aduenetako Merkataritza

(*) 2011ko zentsuekin eguneratu den populazio oinarri berriarekin kalkulaturiko seriea.

(**) Berrikusitako populazio berriarekin (2012 oinarria) lortutako datuak.